IPUIN KONTALARIEN XII. MARATOIA. Azaroaren 21ean, Liburutegi nagusiko sotoan

1. **MAITE FRANKO CASTRO. *Jateko moduko ipuinak* kontaketa saioa.**



Ipuin hauetan janaria dugu ardatza, aitzakia, irtenbide edota galbidea, bizirautea jokoan baitago. Entzun zapore ona uzten duten istorio dibertigarri hauek eta gero etxean, otorduetan berriz ere kontatu!

2-4 urte Ordua: 11:00etan

2. **JOSUNE GARCIA DE BIKUÑA QUINTANA. *Mundu bat sustraietan* ipuin kontaketa saioa.**



Kobazuloak, ozeanoak, basoak eta errekak dira gure arbasoen istorioen gordeleku. Horietan ixil-ixilik geratuz gero, lami, sorgin, animalia eta bestelako pertsonaia zoragarrien ipuinak entzuten direla ikasi dut.
Horiek bildu, kiribildu eta ikimilikiliklik! Ipuin-zopa sortu dut.

4-8 urte Ordua: 12:00etan

3. SAROA BIKANDI ETA PERU MAGDALENA. *Poropopoesia*. Poesia lantzeko saioa.



Saio honen bitartez umeak poesiara beldurrik gabe eta jolasti hurbilaraziko ditugu. Horretarako, era aske eta atsegin batean, hainbat poesia genero ezberdin aurkeztu eta hauetako bakoitzean poema bana sorraraziko zaie. Generoak: akrostikoak, haikuak, kaligramak, poema dadaistak, poema xuxurlatuak, etab. Beste zeharkako gaitasun batzuk ere landuko dira, sormenetik betiere.

8-14 urte. Ordua: 17:00etan.

4. MIREIA DELGADO. *Matilda*. Roald Dahlek idatzitako *Matilda* obraren ahozko adaptazioa.



Idatzitako obra klasikoarekin sintonian sortutako ikuskizun honetan, liburua irakurri dutenek zein ezagutzen ez dutenek gozatuko dute. Eta berau irakurtzeko gogoa piztuko zaie gainera. Fidela den arren, adaptazio librea da: azentuak, ñabardurak eta azpimarratutakoak kontalariarenak dira. Ez izan beldur, ez zarete damutuko.

Gazteak (+15) eta helduak. Ordua: 18:00etan